



## ALDIZKARI OFIZIALA BOLETIN OFICIAL

16 ZENBAKIA  
XII LEGEALDIA  
2024ko uztailaren 11a

NÚMERO 16  
LEGISLATURA XII  
11 de julio de 2024

### AURKIBIDEA

Laguntzak eta subentzioak

00/D/46/0000701 Txosten-proposamena,  
Gipuzkoako Batzar Nagusiek nazioarteko  
lankidetzako proiektuei dirulaguntzak  
emateko (2024)

### SUMARIO

Ayudas y subvenciones

00/D/46/0000701 Informe-propuesta para  
la concesión de subvenciones de las Juntas  
Generales de Gipuzkoa a proyectos de  
cooperación internacional (2024)

**Laguntzak eta subentzioak****00/D/46/0000701 TXOSTEN-PROPOSAMENA,  
GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEK NAZIOARTEKO  
LANKIDETZAKO PROIEKTUEI DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO (2024)**

Gipuzkoako Batzar Nagusi hauetako MAHAIAk, 2024ko uztailaren 9an egindako bileran, ERABAKI hau hartu du, besteak beste:

“Ikusirik zerbitzu juridikoek prestatutako txosten-proposamena, Gipuzkoako Batzar Nagusiek nazioarteko lankidetzako proiektuei dirulaguntzak emateko:

Ganberako Mahaiak izendatutako instruktoreak egindako eta Balorazio Batzordeak onetsitako balorazio-txostenean oinarrituta, Batzar Nagusietako Mahaiak erabaki hauek hartu ditu nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzei buruz:

1. Ondoren zehazten diren zenbatekoetako laguntzak ematen zaizkie erakunde hauei, bakoitzak aurkeztutako proiektuei dagokienez:

- SMH-Salvamento Marítimo Humanitario. “Asistencia humanitaria y rescate de botes en situación de emergencia en rutas marítimas por las que huyen personas migrantes y refugiadas” proiektua. 10.570,78 €
- Zaporeak. Greziako Lesbos uhartean errefuxiatuei elikagai-laguntza emateko proiektua. 9.729,92 €
- Euskadi-Cuba. “El centro oftalmológico Che Guevara por el derecho a la salud visual de la comunidad migrante de barrio San Martín (ciudad de Córdoba, en Argentina), sus mujeres e infancias” proiektua. 9.729,92 €
- Guk Ucrania-Asociación solidaria ayuda a refugiados ucranianos. “Casa acogida

**Ayudas y subvenciones****00/D/46/0000701 INFORME-PROPUESTA PARA  
LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DE LAS  
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA A  
PROYECTOS DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
(2024)**

La MESA de estas Juntas Generales de Gipuzkoa en su reunión celebrada el día 9 de julio de 2024, ha adoptado entre otros el siguiente ACUERDO:

“Visto el informe-propuesta elaborado por los servicios jurídicos para la concesión de subvenciones de las Juntas Generales de Gipuzkoa a proyectos de cooperación internacional:

En base al informe de valoración elaborado por la persona instructora designada por la Mesa de la Cámara, que fue aprobado por la Comisión de Valoración, la Mesa de las Juntas Generales adopta los siguientes acuerdos en relación con las subvenciones a la cooperación internacional:

1. Se conceden ayudas, por la cuantía que se especifica, a las siguientes organizaciones en relación a los proyectos presentados por cada una de ellas:

- SMH-Salvamento Marítimo Humanitario. Proyecto “Asistencia humanitaria y rescate de botes en situación de emergencia en rutas marítimas por las que huyen personas migrantes y refugiadas”. 10.570,78 €
- Zaporeak. Proyecto de ayuda alimentaria a personas refugiadas en la isla griega de Lesbos. 9.729,92 €
- Euskadi-Cuba. Proyecto “El centro oftalmológico Che Guevara por el derecho a la salud visual de la comunidad migrante de barrio San Martín (ciudad de Córdoba, en Argentina), sus mujeres e infancias”. 9.729,92 €
- Guk Ucrania-Asociación solidaria ayuda a refugiados ucranianos. Proyecto “Casa

- |   |   |
|---|---|
| <p>Pimpin Garracha con Guk Ucrania” proiektua. 9.246,88 €</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Amigos Solidarios. “Programa niños en la calle: Omusika oportunidad” proiektua. 7.500 €</li> <li>- Bekoz Beko. “Programa de formación en artesanía y moda para apoyar la profesionalización de las mujeres supervivientes de ataques de ácido en India, que forman parte del proyecto de cafeterías Sheroes Hangout” proiektua. 3.772,50 €</li> </ul> <p>-</p> <p>2. Aurkeztutako proiektu guztiak interes handikoak dira, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko eta eskubide horiekin lotutako nazioarteko itunetako giza eskubideek urraketa larriak jasaten dituzten egoerei erantzuten diete. Hala ere, proiektu guztiak ezin dira diruz lagundu, laguntzak deialdiaren gehieneko zenbatekora egokitu behar direlako eta diruz lagundutako proiektuek ezin dutelako eskatutakoaren % 75 baino gutxiago jaso. Beraz, elkarre hauek dirulaguntzarik gabe geratuko dira: Donostiako Euskal Elizbarrutietako Misioak, Jorge Adolfo Freytter Romero eta Alboan Fundazioa.</p> <p>3. Ebazpen hau Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitaratzea, eta erakunde eskatzaileei jakinaraztea.</p> <p>4. Ebazpena errekurritu ahal izango da; horretarako, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Mahaiari, zeina hautazkoa izango den, jakinarazpena jaso eta hilabete bateko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean”.</p> | <p>acogida Pimpin Garracha con Guk Ucrania”. 9.246,88 €</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Amigos Solidarios. Proyecto “Programa niños en la calle: Omusika oportunidad”. 7.500 €</li> <li>- Bekoz Beko. Proyecto “Programa de formación en artesanía y moda para apoyar la profesionalización de las mujeres supervivientes de ataques de ácido en India, que forman parte del proyecto de cafeterías Sheroes Hangout”. 3.772,50 €</li> </ul> <p>2. Todos los proyectos presentados son de muy alto interés, y responden a situaciones en las que los derechos humanos de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y de los Pactos internacionales relacionados con los mismos sufren graves vulneraciones. Sin embargo, no todos los proyectos pueden ser subvencionados, porque las ayudas se han de ajustar a la cuantía máxima de la convocatoria y ningún proyecto subvencionado puede recibir menos del 75% de lo solicitado. Por tanto, estas tres asociaciones quedarán sin subvención: Misiones Diocesanas Vascas de San Sebastián, Jorge Adolfo Freytter Romero y Fundación Alboan.</p> <p>3. Publicar esta resolución en el Boletín Oficial y en la Web de las Juntas Generales y notificar a las entidades solicitantes.</p> <p>4. La resolución podrá ser recurrida, interponiendo un recurso de reposición ante la Mesa, que será potestativo, en el plazo de un mes desde la notificación, o directamente un recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses”.</p> |
|---|---|

Xabier Ezeizabarrena Saenz  
Donostian, 2024ko uztailaren 9an.  
Lehendakaria

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEK NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO PROIEKTUEI DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO TXOSTEN PROPOSAMENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek nazioarteko lankidetzak proiektuei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat etorritik, Mahaiak instruktore izendatutako pertsonak txosten bat egin zuen, aurkeztutako proiektuen balorazioarekin eta laguntzak esleitzeko proposamenarekin. Ondoren, Mahaiak izendatutako Balorazio Batzordeak txosten hori aztertu eta baliozkotzat jo zuen, eta, ondorioz, bertan jasotako proposamena Mahaiari aurkezten dio.

Ohar honi aipatutako txostena eta batzorde horren bileraren akta erantsi zaizkio.

Mahaiari honako akordio-proposamen hau egiten zaio:

Batzar Nagusiek nazioarteko lankidetzak proiektuei dirulaguntzak emateko deialdira honako proiektu hauek aurkeztu ziren:

1. Amigos Solidarios. Proiektua: "Programa niños en la calle: Omusika oportunidad". 10.000 euro.
2. Bekoz Beko. Proiektua: "Programa de formación en artesanía y moda para apoyar la profesionalización de las mujeres supervivientes de ataques de ácido en India, que forman parte del proyecto de cafeterías Sheroes Hangout". 5.030 euro.
3. SMH-Salvamento Marítimo Humanitario. Proiektua: "Asistencia humanitaria y rescate de botes en situación de emergencia en rutas marítimas por las que huyen personas migrantes y refugiadas". 12.000 euro.
4. Guk Ucraina-Asociación solidaria ayuda a refugiados ucranianos. Proiektua: "Casa acogida Pimpin Garracha con Guk Ucraina". 11.842,88 euro.
5. Zaporeak. Greziako Lesbos uhartean errefuxiatuei elikagai-laguntza emateko proiektua. 12.000 euro.
6. Missio, Euskal Elizbarrutietako misioak, Donostia. Casa de acogida y Centro de atención integral para mujeres víctimas de violencia basada en género en Babahoyo, provincia de Los Ríos, en Ecuador proiektua. 10.000 euro.
7. Asociación Freyter Elkarte (AJAFR). "Empoderamiento de jóvenes para el desarrollo a través de la investigación y la formulación colectiva" proiektua, Barranquillan (Kolonbia). 10.000 euro.
8. Alboan. "Mujeres dalits trabajadoras informales en el sur de la India: por la defensa de sus derechos a una vida libre de violencias y discriminaciones de género o casta" proiektua. 12.000 euro.
9. Euskadi-Cuba. "El centro oftalmológico Che Guevara por el derecho a la salud visual de la comunidad migrante de barrio San Martín (ciudad de Córdoba, en Argentina), sus mujeres e infancias" proiektua. 12.000 euro.

Proiektu guztiek betetzen dituzte oinarrietan ezarritako baldintzak.

Ganberako Mahaiak izendatutako instruktoreak egindako eta Balorazio Batzordeak onartutako balorazio-txostenean oinarrituta, Batzar Nagusietako Mahaiari nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzei buruzko honako akordio-proposamen hauek aurkezten zaizkio. Ebazpen honekin batera doa aipatutako txostena.

Ondoren zehazten diren zenbatekoetako laguntzak ematen zaizkie erakunde hauei, bakoitzak aurkeztutako proiektuei dagokienez:

- SMH-Salvamento Marítimo Humanitario. “Asistencia humanitaria y rescate de botes en situación de emergencia en rutas marítimas por las que huyen personas migrantes y refugiadas” proiektua. 10.570,78 €
- Zaporeak. Greziako Lesbos uhartean errefuxiatuei elikagai-laguntza emateko proiektua. 9.729,92 €
- Euskadi-Cuba. “El centro oftalmológico Che Guevara por el derecho a la salud visual de la comunidad migrante de barrio San Martín (ciudad de Córdoba, en Argentina), sus mujeres e infancias” proiektua. 9.729,92 €
- Guk Ucrania-Asociación solidaria ayuda a refugiados ucranianos. “Casa acogida Pimpin Garracha con Guk Ucrania” proiektua. 9.246,88 €
- Amigos Solidarios. “Programa niños en la calle: Omusika oportunidad” proiektua. 7.500 €
- Bekoz Beko. “Programa de formación en artesanía y moda para apoyar la profesionalización de las mujeres supervivientes de ataques de ácido en India, que forman parte del proyecto de cafeterías Sheroes Hangout” proiektua. 3.772,50 €

Aurkeztutako proiektu guztiak interes handikoak dira, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko eta eskubide horiekin lotutako nazioarteko itunetako giza eskubideek urraketa larriak jasaten dituzten egoerei erantzuten diete. Hala ere, proiektu guztiak ezin dira diruz lagundu, laguntzak deialdiaren gehieneko zenbatekora egokitu behar direlako eta diruz lagundutako proiektuek ezin dutelako eskatutakoaren % 75 baino gutxiago jaso.

Ebazpen hau Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitaratzea, eta erakunde eskatzaileei jakinaraztea.

Ebazpena errekurritu ahal izango da; horretarako, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Mahaiari, zeina hautazkoa izango den, jakinarazpena jaso eta hilabete bateko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean.

Donostian, 2024ko ekainaren 28an

Arantza Etxeberria Labayen

Legelaria

**INFORME-PROPUESTA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DE LAS JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA A PROYECTOS DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL**

De conformidad con lo establecido por las bases reguladoras de las subvenciones de las Juntas Generales de Gipuzkoa a proyectos de cooperación internacional, la persona designada por la Mesa como instructora realizó un informe, con la valoración de los proyectos presentados y una propuesta de adjudicación de ayudas. Posteriormente, la Comisión de Valoración nombrada por la Mesa analizó dicho informe y lo dio por válido, y, en consecuencia, eleva la propuesta en él contenida a la Mesa.

Se adjuntan a esta nota el referido informe y el acta de la reunión de la mencionada comisión.

Se somete a la consideración de la Mesa la siguiente propuesta de acuerdo:

A la convocatoria de las Juntas Generales a proyectos de cooperación internacional se presentaron los siguientes proyectos:

1. Amigos Solidarios. Proyecto “Programa niños en la calle: Omusika oportunidad”. 10.000 euros.
2. Bekoz Beko. Proyecto “Programa de formación en artesanía y moda para apoyar la profesionalización de las mujeres supervivientes de ataques de ácido en India, que forman parte del proyecto de cafeterías Sheroes Hangout”. 5.030 euros.
3. SMH-Salvamento Marítimo Humanitario. Proyecto “Asistencia humanitaria y rescate de botes en situación de emergencia en rutas marítimas por las que huyen personas migrantes y refugiadas”. 12.000 euros.
4. Guk Ucrania-Asociación solidaria ayuda a refugiados ucranianos. Proyecto “Casa acogida Pimpin Garracha con Guk Ucrania”. 11.842,88 euros.
5. Zaporeak. Proyecto de ayuda alimentaria a personas refugiadas en la isla griega de Lesbos. 12.000 euros.
6. Missio, Euskal Elizbarrutietako misioak, Donostia. Proyecto Casa de acogida y Centro de atención integral para mujeres víctimas de violencia basada en género en Babahoyo, provincia de Los Ríos, en Ecuador. 10.000 euros
7. Asociación Freytter Elkartea (AJAFR). Proyecto “Empoderamiento de jóvenes para el desarrollo a través de la investigación y la formulación colectiva”, en Barranquilla (Colombia). 10.000 euros.
8. Alboan. Proyecto “Mujeres dalits trabajadoras informales en el sur de la India: por la defensa de sus derechos a una vida libre de violencias y discriminaciones de género o casta”. 12.000 euros.
9. Euskadi-Cuba. Proyecto “El centro oftalmológico Che Guevara por el derecho a la salud visual de la comunidad migrante de barrio San Martín (ciudad de Córdoba, en Argentina), sus mujeres e infancias”. 12.000 euros.

Todos los proyectos cumplen los requisitos establecidos por las bases.

En base al informe de valoración elaborado por la persona instructora designada por la Mesa de la Cámara, que fue aprobado por la Comisión de Valoración, se someten a la consideración de la Mesa de las Juntas Generales las siguientes propuestas de acuerdo en relación con las subvenciones a la cooperación internacional. Se adjunta a esta resolución el referido informe.

Se conceden ayudas, por la cuantía que se especifica, a las siguientes organizaciones en relación a los proyectos presentados por cada una de ellas:

- SMH-Salvamento Marítimo Humanitario. Proyecto “Asistencia humanitaria y rescate de botes en situación de emergencia en rutas marítimas por las que huyen personas migrantes y refugiadas”. 10.570,78 €
- Zaporeak. Proyecto de ayuda alimentaria a personas refugiadas en la isla griega de Lesbos. 9.729,92 €
- Euskadi-Cuba. Proyecto “El centro oftalmológico Che Guevara por el derecho a la salud visual de la comunidad migrante de barrio San Martín (ciudad de Córdoba, en Argentina), sus mujeres e infancias”. 9.729,92 €
- Guk Ucrania-Asociación solidaria ayuda a refugiados ucranianos. Proyecto “Casa acogida Pimpin Garracha con Guk Ucrania”. 9.246,88 €
- Amigos Solidarios. Proyecto “Programa niños en la calle: Omusika oportunidad”. 7.500 €
- Bekoz Beko. Proyecto “Programa de formación en artesanía y moda para apoyar la profesionalización de las mujeres supervivientes de ataques de ácido en India, que forman parte del proyecto de cafeterías Sheroes Hangout”. 3.772,50 €

Todos los proyectos presentados son de muy alto interés, y responden a situaciones en las que los derechos humanos de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y de los Pactos internacionales relacionados con los mismos sufren graves vulneraciones. Sin embargo, no todos los proyectos pueden ser subvencionados, porque las ayudas se han de ajustar a la cuantía máxima de la convocatoria y ningún proyecto subvencionado puede recibir menos del 75% de lo solicitado.

Publicar esta resolución en el Boletín Oficial y en la Web de las Juntas Generales y notificar a las entidades solicitantes.

La resolución podrá ser recurrida, interponiendo un recurso de reposición ante la Mesa, que será potestativo, en el plazo de un mes desde la notificación, o directamente un recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses.

Donostian, 2024ko ekainaren 28an

Arantza Etxeberria Labayen

Legelaria

**NAZIOARTEKO LANKIDETZA-PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZAK. 2024**  
**INSTRUKTOREAREN TXOSTENA**

Apirilaren 24an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek nazioarteko lankidetzaproiektuetarako dirulaguntzen deialdia argitaratu zuten erakundearen aldizkari ofizialean eta web-orrian. Eskabideak egiteko hilabeteko epea ireki zen. Epea amaituta, bederatzi proiektu aurkeztu ziren, bederatzi erakundek bidaliak.

Oinarriek hilabeteko epea ezartzen zuten, ordua zehaztu gabe. Oinarriak webgunean argitaratzeko iragarkiaren arabera, epea maiatzaren 24an amaitzen zen, 14:00etan. Proiektuetako bat, Euskadi-Kubarena, 14:41ean aurkeztu zen posta elektronikoz. Administrazio publikoen prozedura erkideari buruzko 39/2015 Legeak epeen zenbaketari buruz xedatutakoa aplikatuz, ulertu behar da ezen, oinarriek ez dutenez ezarri epearen amaierako ordu bat, hilaren 25eko 00:00ak izan behar duela, hau da, hilaren 24a egun osoa amaitu arte. Ondorioz, aipatutako eskaera hori onartu egin behar da.

Erakunde hauek egin zituzten eskaerak eta proiektuak aurkeztu:

1. Amigos solidarios. "Programa niños en la calle: Omusika oportunidad" proiektua.
2. Bekoz Beko. Artisautza eta joskintzako prestakuntza-programa, Indian azido-erasoetatik bizirik atera diren eta Sheroes Hangout kafetegien proiektuan dauden emakumeen profesionalizazioan laguntzeko proiektua.
3. Itsas Salbamendu Humanitarioa. "Migratzaileek eta errefuxiatuek ihes egiten duten itsas ibilbideetan larrialdi-egoeran dauden txalupak erreskatatzea eta laguntza humanitarioa" proiektua.
4. Guk Ukraina-Ukrainako errefuxiatuei laguntzeko elkartasun-elkartea. "Pimpin Garracha harrera-etxea Guk Ukrainarekin" proiektua.
5. Zaporeak. Greziako Lesbos uhartean errefuxiatuta daudenei elikadura-laguntza emateko proiektua.
6. Missio, Euskal Elizbarrutietako misioak, Donostia. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea eta arreta integraleko zentroaren proiektua Ekuadorko Babahoyon, Los Ríos probintzian.
7. Freytter Elkarte (AJAFR). "Gazteak ahalduentzea garapenerako, ikerketa eta formulazio kolektiboaren bidez" proiektua, Barranquilla-n (Kolonbia).
8. Alboan. "Dalit emakume langile informalak Indiako hegoaldean: genero-indarkeriarik eta genero-diskriminaziorik edo kastarik gabe bizitzeko dituzten eskubideak defendatzeagatik" proiektua.
9. Euskadi-Kuba. "Che Guevara zentro oftalmologikoa, Argentinako San Martin auzoko komunitate migratzailearen (Kordoba hiria), emakumeen eta haurren osasun bisualerako eskubidearen alde" proiektua.

Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien 8. puntuak xedatzen du Mahaiak instruktore bat izendatu behar duela balorazio-txostena idazteko. Mahaiak txosten hau sinatzen duena izendatu zuen instruktore.

Lehenik eta behin, aurkeztutako proiektuek oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten aztertu zen. Baldintza horiek honako hauek dira:

Gehienez ere bost orriren barruan, honako hauek azaltzea:

1. Erakundearen eta arduradunaren oinarrizko datuak.
2. Harremanetarako pertsona, posta elektronikoa, telefonoa.
3. Proiektuaren memoria.
4. Aurrekontu xehatua, gastu-kontzeptuen arabera.
5. Proiektuak beste dirulaguntza batzuk jaso dituen edo horretarako eskabideren bat egin den.
6. Erakundeak proiektuaren kudeaketan edo antzeko beste batzuetan duen esperientzia, eta erakundearen kaudimena eta gaitasun teknikoa eta ekonomikoa.
7. Proiektuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean edo emakumeen ahalduztzean izango lukeen eraginaren azterketa.
8. Erakunde eskatzailea dagokion erregistroan inskribatuta egotea.
9. Gipuzkoan egoitza soziala edo ordezkaritza izatea.
10. Diru-laguntzei buruzko debekurik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
11. Proiektua 2024an hasia edo amaitzea.
12. Eskatutako gehieneko zenbatekoa 12 000 €-koa izatea.

Oinarriek ezartzen dute eskabideetan aurkeztu beharreko informazio edo dokumentaziorik eza edo akatsak bost egun balioduneko epean zuzendu ahal izango direla, espedientearen instruktoreak jakinarazten duenetik aurrera. Horrela egin zen bost proiektuekin. Erakunde aurkezleek falta zen dokumentazioa bidali zuten edo akatsak zuzendu zituzten emandako epean. Aurkeztutako proiektua zuzentzeko (ezarritako zenbatekoa gainditzeagatik) edo falta ziren agiriak edo egiaztagiriak aurkezteko errekerimenduak laguntza horiek kudeatzeko sortutako posta elektronikoaren gordailuan daude ([dirulaguntzak@bngipuzkoa.eus](mailto:dirulaguntzak@bngipuzkoa.eus)).

Oinarrietan zehazten da zein kasutan baztertu daitezkeen proiektuak ezarritako baldintzak ez betetzeagatik. Instruktore honen iritziz, ez dago inolako proiektutan baztertzeko arrazoirik, proiektu guztiek betetzen baitituzte baldintzak. Hala ere, adierazi behar da eskabide gehienetan oinarrien betekizunen interpretazio oso lasaia erabili dela, bereziki gorago aipatutako zerrendako zazpigarren puntuari dagokionez.

Honako hau da deialdiaren xedea (5-a oinarria):

Diru-laguntzen xedea hegoalde globaleko herrialde eta herrietan gauzatzen diren proiektuak izan beharko dira, edo herrialde horietatik datozen eta migrazio-egoeran edo nazioarteko babes-neurri baten zain dauden pertsonen laguntzeko proiektuak.

Laguntza edo esku-hartze mota hauek izan daitezke: hezkuntza-proiektuak, gizartea eraldatzeko ekimen edo ekintza zehatzak, larrialdiko eta ekintza humanitarioko laguntza-proiektuak, garapen-proiektuak, etab.

Bederatzi proiektuen edukiek helburu horri erantzuten diote.

Proiektuei puntuak emateko oinarriak ezartzen dituzten irizpideak honako hauek dira:

- a) Proiektuak proiektuaren xede den lekuan edo pertsonengan izango duen eragin positiboa. Irizpide hori baloratzeko, haren eragina hartuko da kontuan, bai eta onuradun izango diren pertsonen kopurua ere. 10 puntu.
- b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu.
- c) Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu.
- d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna duten pertsonak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. "b" eta "c" ataletan baloratu ez direnak. 10 puntu.
- e) Batzar Nagusiek proiektua diruz lagundu izana lehenago, eta erakunde berak kudeatu izana. 10 puntu, gehienez. 2 puntu emandako laguntza bakoitzeko. Proiektua berdina ez bada, baina analogia handia badu, puntu 1 emango zaio.

Jarraian, proiektu bakoitzaren balorazioa agertzen da; puntuazioa balorazio-irizpideak betetzearen arabera esleitu da.

Aldez aurreko ohar gisa esan behar da proiektu guztiak "a" atalean baloratu behar direla, proiektuaren eragin positiboa dela eta. Aurten, onuradun izango diren pertsonen kopuruaren irizpidea gehitu da oinarrietan. Irizpide hori honela interpretatu da: onuradunak mila baino gehiago badira, proiektuari gehienez hamar puntu ematea. Kopuru horretara iristen ez bada, zortzi puntu.

Bigarrenik, komeni da zehaztea "e" atalaren bukaerako balorazio-irizpidea: proiektuak aurreko urteetako beste batekin "analogia handia" edukitzea. Esamolde horrekin ulertu behar da "antzekotasuna" edo intentsitate txikiko analogia baino irismen handiagoa izan behar duela. Beraz, ez litzateke nahikoa izango kolektibo kaltebera bera edo proiektua garatuko den herria bera izatea; aitzitik, alderatzen diren bi proiektuen artean lotura edo lotura-elementu bat baino gehiago egon beharko litzateke.

**1.- AMIGOS SOLIDARIOS. «NIÑOS EN LA CALLE OMUSIKA OPORTUNIDAD» PROIEKTUA.**

Proiektuaren muina. Aurreko urteetako proiektua jarraitzea: kaleko haurrak hartzea ekipatzen ari den etxe batean, eta harrera hori haur gehiagori zabaltzea. Orain arte 16 mutil itzuli dira beren familietara. Gaur egun, 70 mutil ditugu aurkituta. Proiektua Ugandan garatzen da, Iganga herrian.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**0 puntu.** Ez da proiektuaren xedean sartzen.

c.- Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**10 puntu.** Haurrei zuzendutako proiektua da, haien eskubideak eta egoera hobetzeko.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak dituztenak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.** Kalteberatasuna baloratu da "c" atalean

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**6 puntu** aurreko urteetan emandako laguntzengatik, 2 puntu (2023), 2 puntu (2022), 2 puntu (2021).

Proiektua berdin-berdina ez bada, baina analogia handia badu, puntu 1 emango zaio. **0 puntu.** 2020ko diruz lagundutako proiektua ez da oso antzekoa, definitu den baldintzetan, Iganga herri bereko ikastetxe bati laguntzea baitzuen helburu.

**Guztira: 24 puntu.**

**2.- BEKOZ BEKO. SHEROES HANGOUT/CHHANY FUNDAZIOAREKIN PROIEKTUA: SHEROES EMPOWERMENT**

Proiektuaren muina. Sheroes Agra azido-erasoetatik bizirik atera diren emakumeen profesionalizazioari laguntzeko jostintza-trebetasunak eta eskulanak garatzeko prestakuntza, landa-inguruneko beste emakume-talde batzuei beren ezagutzak transmititzeko lankidetzaren bidez.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea.  
10 puntu

**10 puntu.**

c) Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**0 puntu.** Proiektuaren memorian ez dira adingabeak aipatzen.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.** Kalteberatasuna baloratu da "b" atalean.

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

6 puntu aurreko urteetan emandako laguntzengatik, 2 puntu (2023), 2 puntu (2022), 2 puntu (2021).

**Guztira: 24 puntu**

### **3.- ITSAS LAGUNTZA HUMANITARIOA. LAGUNTZA HUMANITARIOA ETA LARRIALDI-EGOERAN DAUDEN TXALUPAK ERRESKATATZEA MIGRATZAILEEK ETA ERREFUXIATUEK IHES EGITEN DUTEN ITSAS IBILBIDEETAN.**

Proiektuaren muina. Mediterraneoaren erdialdean, nazioarteko uretan, migratzaileen itsasontziak bilatzea eta erreskatatzea. Erreskatatutako pertsonak artatu eta portu seguru batera eramaten dituzte. (...) Lau misio egitea aurreikusten da aurten, eta 1 200 pertsona izan litezke onuradunak. Identifikatu daitezkeen emakumeei, adingabeei, LGTBI+ pertsonari eta beste pertsona zaurgarri batzuei arreta espezifikoa emango zaie haien premietarako.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**10 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea.  
10 puntu.

**0 puntu.** Proiektuaren xedea ez da berariaz emakumeen egoera edo eskubideak, baina arreta berezia eskaintzen zaie eskubideen urraketak jasan dituzten emakumeei. Hala ere, lehentasuna eman zaion "d" ataleko balorazioa bateraezina da atal honetan puntuatzearekin.

c.- Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu.

**0 puntu.** Beste horrenbeste esan daiteke atal honen balorazioari buruz.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**10 puntu.** Proiektuaren hartzaileak migratzaileak eta errefuxiatuak dira, bai eta muturreko kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak ere.

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**4 puntu** aurreko urteetan emandako laguntzengatik: 2 puntu 2018an, 2 puntu 2023an.

**4 puntu**, proiektua bera ez bada, baina analogia handia badu. 2021, Chiosen errefuxiatuentzako osasun-arreta, puntu 1. 2020, berdin, puntu 1. 2019, puntu 1 (erreskate-ontzirako erregaia). 2017, puntu 1 (erreskate-txalupa eskuratzea). Aurtengo proiektuaren xedea erreskatea eta arreta dira, eta aipatutako proiektuek antz handia dute helburu horiekin.

**Guztira: 28 puntu.**

#### **4.- GUK UKRAINA. PIMPIN GARRACA HARRERA-ETXEA**

Proiektuaren muina. Beren jatorrizko hirietatik Euskadira lekualdatu diren emakume errefuxiatu ukrainiarrei laguntzea, integrazioan, modernizazioan, familia-itxaropenak eta lan-merkatua zabaltzean, egokitzapenean eta independentzian, emakumearen ahalduntzearekin, eta Pimpin Garracha harrera-etxearen proiektuaren bidez helburu hori lortzeko behar den guztia emanaz. Gaur egun, 5 familia errefuxiatu bizi dira harrera-etxe horretan (18 pertsona).

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**10 puntu.** Gehienak emakumeak dira, eta proiektuak haien egoerari, ahalduntzeari eta integrazioari egiten dio erreferentzia.

c.- Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**5 puntu.** Seme-alabak dituzten familiak dira, eta haien egoera eta eskubideak babestu nahi dira. Gehieneko puntuazioaren erdia emango zaio, adingabeen eskubideak edo babesak ez direlako proiektuaren xede bakarra.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.** "b" eta/edo "c" atalak baloratu badira, proiektua ezin da puntu honetan puntuatu.

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**2 puntu** emandako laguntza bakoitzeko. 2 puntu (2023)

**Guztira: 25 puntu.**

#### **5.- ZAPOREAK. LESBOS UHARTEAN (GREZIA) ERREFUXIATUAK ELIKATZEA**

Proiektuaren muina. Greziako Lesbos uharteko eremuetan harrapatuta dauden errefuxiatuak elikatzea. Arreta berezia ematen zaie pertsona kalteberenei, zehazki, gaixotasun kronikoak dituztenei, haurdun dauden emakumeei eta adingabeei edo abusuen biktima izan direnei. Egunean 3 000 anoa inguru prestatzen eta banatzen dira.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**10 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**0 puntu.** Haurdun dauden emakumeei emandako arreta bereziagatik 5 puntu eman daitezke, baina balorazio hori bateraezina da "d" atalekoarekin.

c) Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**0 puntu.** Adingabeentzako arreta bereziagatik 5 puntu eman daitezke, baina balorazio hori bateraezina da "d" atalekoarekin.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**10 puntu.** Hartzaileak kalteberatasun bereziko eta gizarte-bazterketa oso larriko egoeran dauden errefuxiatuak dira. Balorazio-irizpide horrek berariaz aipatzen ditu errefuxiatuak. Ondorioz, hamar punturekin baloratu behar da.

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**6 puntu** aurreko urteetan emandako laguntzengatik, 2 puntu (2023), 2 puntu (2022), 2 puntu (2021).

**Guztira: 26 puntu.**

**6.- MISSIO. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA-ETXEA ETA ARRETA INTEGRALEKO ZENTROAREN PROIEKTUA EKUADORKO BABAHOYON, LOS RÍOS PROBINTZIAN.**

Proiektuaren muina: Agintari publiko eskudunekin koordinatuta eta modu espezializatuan, arreta-zentro egonkor bat eta harrera-etxe bat finkatzea (Los Ríos probintzian ez dago horrelakorik, orain arte), indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei arreta integrala emateko.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**10 puntu**

c) Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaugarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**5 puntu.** Proiektuaren xedea ez bada ere, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen seme-alabak babesten dira.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.**

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**0 puntu** aurreko urteetan emandako laguntzengatik. Proiektua berria da.

**0 puntu** antzekotasun handia duten proiektuengatik; izan ere, aurreko urteetan (2021ean eta 2022an) laguntza jaso zuten bi proiektuek Kamerungo Batsenga ospitalea zuten hartzaile, ur-biltegi bat eraikitzeke eta multzo elektrogeno bat sortzeko.

**Guztira: 23 puntu.**

**7.- JORGE ADOLFO FREYTTER ELKARTEA. "KOLONBIAKO GATAZKA ARMATUAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ESKUBIDEAK SUSTATUZ" PROIEKTUA**

Proiektuaren muina: Kolonbiako Barranquilla hirian, bakea eta 14 eta 28 urte bitarteko 30 gazteren parte-hartzea lortzeko herritarren ahaldunderako guneak eraikitzen laguntzea, memoria historikoari buruzko proiektuetan prestakuntza emanaz eta indarkeriazko eragileek gatazka armatuaren esparruan erabilitako espazioei esanahi berri bat emanaz.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**5 puntu.** Egingo diren jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze parekidea azpimarratzen du proiektuak, eta, beraz, emakumeak ahalduztzeko eta berdintasuna sustatzeko ariketa bat da. Gehieneko puntuazioaren erdia eman zaio, ez baita proiektuaren xede eksklusiboa edo lehentasunezkoa.

c) Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**5 puntu.** Proiektuaren xede diren gazteetako batzuk adingabeak dira.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.**

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**0 puntu,** aurretik diruz lagundutako proiektu berdinen azpiatalean. Berria da.

**Puntu 1.** Proiektua ez bada berdina, baina analogia handia badu. 2022an laguntza bat eman zitzaion Kolonbian indarkeria politikoaren gaiari buruzko dokumental bat egiteko, eta aurtengo proiektuak lotura zuzena du dokumentalarekin. puntu 1.

**Guztira: 19 puntu.**

**8.- ALBOAN FUNDAZIOA.** "Dalit emakume langile informalak Indiako hegoaldean: genero-indarkeriarik eta genero-diskriminaziorik edo kastarik gabe bizitzeko dituzten eskubideak defendatzeagatik" proiektua.

Proiektuaren muina. Indarkeriarik eta genero-jazarpenik gabeko bizitzaren alde, lan duinaren alde eta soldata-berdintasunaren alde emakume dalit-ek egiteko duten antolamendu-gaitasuna indartzea.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**10 puntu.** Emakumeen egoera eta eskubideak proiektuaren xede dira.

c.- Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**0 puntu.**

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak, gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.** Dagoeneko baloratu da, "b" atalean, puntuazio handienarekin.

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**0 puntu,** aurreko urteetan diruz lagundutako proiektuek ez baitute antzekotasun handirik horrekin. 2020 (arreta humanitarioa Cantera-n, Nikaragua), 2021 (berdin), Nikaraguako landa-eremuko emakumeen ahalduntzea (2022)

**Guztira: 18 puntu.**

#### **9.- EUSKADI-KUBA ELKARTEA. FRAILE PINTADO-KO EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, BIZTANLERIAREN PRESTAKUNTZAREN, LAGUNTZAREN ETA OSASUN-ARRETAREN BITARTEZ.**

Proiektuaren muina. Che Guevara oftalmologia-zentroa, San Martin auzoko komunitate migratzailearen (Argentinako Kordoba hirian), emakumeen eta haurren osasun bisualerako eskubidearen alde. Prebenitzeko moduko itsutasunaren murrizketan eragitea, arreta oftalmologikotik eta tokiko eskolako irakasleen trebakuntzatik abiatuta, generoaren eta eskubideen ikuspegitik.

a.- Proiektuak eragin positiboa du tokian bertan edo pertsonengan. 10 puntu.

**8 puntu.**

b.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo emakumeen eskubideak babestea. 10 puntu

**5 puntu.** Proiektuak berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea azpimarratzen ditu. Gehieneko puntuazioaren erdia eman zaio, ez baita proiektuaren xede eskusiboa edo lehentasunezkoa.

c) Adingabeen eskubideak babestea edo haiei eragiten dieten zaurgarritasun-egoeretan esku hartzea. 10 puntu

**5 puntu.** Proiektuaren onuradunen artean adingabeak daude.

d) Proiektuaren hartzaileak edo onuradunak kalteberatasun bereziko edo gizarte-bazterketako egoeran egotea, hala nola desgaitasuna dutenak, gaixotasun kroniko edo mentala dutenak,

gutxiengo etniko edo kulturalak, LGTBI pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, indarkeriaren, terrorismoaren edo jazarpenaren biktimak, migratzaileak edo errefuxiatuak, etab. 10 puntu.

**0 puntu.** "b" edo "c" atalak baloratu badira, ezin da baloratu. Agian zuzenagoa izango litzateke gehieneko balorazioa ematea atal honetan, 10 puntu, baina orduan zero punturekin utzi beharko lirateke "b" eta "c" atalak, eta emaitza bera izango litzateke.

e.- Proiektuak lehenago ere Batzar Nagusien dirulaguntza jaso izana.

**8 puntu** aurretik proiektu bererako emandako laguntzengatik. 2017, 2018, 2019 eta 2021ean laguntzak jaso zituzten Che Guevara Zentro Oftalmologikorako (Argentinako Kordoba hirian). 2 puntu proiektu bakoitzeko.

**Guztira: 26 puntu**

Ondorioz, sailkapena honela geratuko litzateke: Proiektua aurkeztu duen erakundearen izena adierazten da:

ITSAS SALBAMENDU HUMANITARIOA.

28 puntu

ZAPOREAK.

EUSKADI-KUBA.

26 puntu bakoitzak.

GUK UKRAINA.

25 puntu

AMIGOS SOLIDARIOS.

BEKOZ BEKO.

24 puntu bakoitzak.

MISSIO

23 puntu

JORGE ADOLFO FREYTTER ELKARTEA.

19 puntu

ALBOAN FUNDAZIOA.

18 puntu

Oinarriek zazpigarren puntuko azken paragrafoan ezartzen dute laguntzetatik kanpo utzi ahal izango direla gutxienez 15 puntu lortzen ez dituzten proiektuak. Puntuazioen taulan azken postuan dagoen proiektuak 18 puntu lortu ditu; beraz, ez da proiektu bakar bate ere baztertu behar.

Jarraian, eskabideen zenbatekoak adierazten dira. Batek ere ez du gainditzen 12 000 euroko muga.

- ITSAS SALBAMENDU HUMANITARIOA. 12 000 €
- ZAPOREAK. 12 000 €
- EUSKADI-KUBA. 12 000 €
- GUK UKRAINA. 11 842,88 €
- AMIGOS SOLIDARIOS. 10 000 €
- BEKOZ BEKO. 5 030 €
- MISSIO. 10 000 €
- JORGE ADOLFO FREYTTER ELKARTEA. 10 000 €
- ALBOAN FUNDAZIOA. 12 000 €

Horien guztien batura 94 872,88 € da, eta deialdiaren gehieneko zenbatekoa 50 550 € da. Oinarriek ezartzen dutenez (zazpigarren puntuko azken aurreko paragrafoa), proiektuen bideragarritasuna ziurtatzeko, proiektuek ez dute eskatutako zenbatekoaren % 75 baino gutxiago jasoko. Zenbatekoak honela geratuko lirateke:

- ITSAS SALBAMENDU HUMANITARIOA. 9 000 €
- ZAPOREAK. 9 000 €
- EUSKADI-KUBA. 9 000 €
- GUK UKRAINA. 8 882,16 €
- AMIGOS SOLIDARIOS. 7 500 €
- BEKOZ BEKO. 3 772,50 €
- MISSIO. 7 500 €
- JORGE ADOLFO FREYTTER ELKARTEA. 7 500 €
- ALBOAN FUNDAZIOA. 9 000 €

Guztira: 71 154,66 €.

